

LEXIKOA: HITZ ELKARTUAK

1. Aukeratu esanahi zuzena.

- Nolakoak dira pertsona mokoluzeak?
 - a) Sudur handia dutenak.
 - b) Beti berriketan dauden hitzontziak.
- Nolakoak dira pertsona mokofinak?
 - a) Janari bikainak gogoko dituztenak.
 - b) Oso-oso argalak direnak.

2. Aukeratu hitz egokia kasu bakoitzean.

- Altonak ez du batere ilerik buruan; _____ da.
a) burugorria b) burusolla
- Panpinari hanka kendu dlo nebak eta orain _____ dago gaixoa.
a) hankamotz b) hankalabur
- Mutil hori beti dabil triste edo _____. Zerbait egin behar dugu pozteko!
a) betilun b) betoker
- Den-denok biluzik edo _____ jaiotzen gara.
a) larrugorrian b) larrugin

3. Adierazi egia ala gezurra den.

- Burugogorra da buruarekin harriak apurtzeko gai dena.
- Ahoberoa da beti gehiegikeriak esaten ibiltzen dena.
- Eskuzabala da esku handi-handiak dituen.
- Ahozikina da hortzak garbitzen ez dituen.
- Buruargia da pertsona azkarra, adimen handikoa.
- Eskulaburra da pertsona zekena, ezer ematen ez duena.